

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua:

1008/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko irailaren 24koa, Erkidegoan aire-zerbitzuak ustiatzeko arau erkideei buruzkoa (bertsio bategina)

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*REGLAMENTO (CE) No 1008/2008 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 24 de septiembre de 2008 sobre normas comunes para la explotación de servicios aéreos en la Comunidad (versión refundida)*». (Diario Oficial de la Unión Europea, L 293/3, 31.10.2008)

1008/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 293/3, 2008/10/31koa).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(Derrigorrez argitaratu beharreko EE/Euratom Tratatuak aplikatuta onartutako egintzak)

ERREGELAMENDUAK

1008/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

**2008ko irailaren 24koa,
Erkidegoan aire-zerbitzuak ustiatzeko arau erkideei buruzkoa (bertsio bategina)
(Testu egokia EEEren ondorioetarako)**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratata, eta, bereziki, haren 80. artikulua 2. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena ⁽¹⁾ aztertu dute, Eskualdeetako Komitearen irizpena aztertu dute ⁽²⁾,

Tratatuko 251. artikuluan (2) araututako prozedurari jarraitu zaio ⁽³⁾,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Funtsezko zenbait aldaketa egin behar dira: alde batetik, 1992ko uztailaren 23ko Kontseiluaren 2407/92 Erregelamenduan (EEE), hegazkin-konpainiei lizentziak emateari buruzkoan ⁽⁴⁾; bestetik, 1992ko uztailaren 23ko Kontseiluaren 2408/92 Erregelamenduan (EEE), Erkidegoko hegazkin-konpainiak Europako Erkidegoaren barneko aireko ibilbideetan sartzeari buruzkoan ⁽⁵⁾, eta azkenik, 1992ko uztailaren 23ko Kontseiluaren 2409/92/EE Erregelamenduan, aire-zerbitzuen prezioei eta pleitei buruzkoan ⁽⁶⁾. Argitasunaren mesedetan, Erregelamendu horiek Erregelamendu bakar batean batgitea eta finkatzea komeni da.

Hegazkintzaren barne-merkatuari buruzko erkidegoko legeria eraginkortasunez eta koherentziaz aplikatzen dela bermatzeko, beharrezkoa da indarreko zuzenbide-esparruan zenbait egokitzapen egitea.

(3) Hegazkin-konpainia baten finantza-sendotasunaren eta -segurtasunaren artean izan daitekeen lotura kontuan hartuta, komeni da hegazkin-konpainien finantza-egoeraren kontrol zorrotzagoa egitea.

(4) Alde batetik, zenbait estatu-kidetan operazio-baseak dituzten hegazkin-konpainiek gero eta garrantzi handiagoa dutenez, eta bestetik, konpainia horiek eraginkortasunez ikuskatzen direla bermatu behar denez, estatu-kideak berak aire-operadorearen ziurtagiria eta ustiapen-lizentzia ikuskatzeaz arduratu behar du.

(5) Erkidegoko hegazkin-konpainia guztien ustiapen-lizentziek baldintzak betetzen dituztela kontrolatzeko, eta kontrol hori koherentziaz egiten dela bermatzeko, haiek emateko eskumena duten agintariek aldi behin aztertu egin behar dute hegazkin-konpainien finantza-egoera. Konpainiek, beraz, finantza-egoeraren behar besteko informazioa eman behar dute, sortu eta hurrengo bi urteetan batez ere, merkatuan bizirik irauteko urte kritikoak baitira horiek. Araudia estatuaren aplikatzerakoan sortutako desberdintasunek lehian distortsiorik ez eragiteko, beharrezkoa da estatu kideek Erkidegoko hegazkin-konpainia guztien finantza-ikuskapena sendotzea.

(6) Bidaiariek arrisku gutxiago izan dezaten, ustiapen-lizentziak indarrean izateko baldintzak betetzen ez dituzten Erkidegoko hegazkin-konpainiek ez dute jaso behar jarduerekin aurrera egiteko baimenik. Halakoetan, agintaritzak eskudunak ustiapen-lizentzia kendu edo baliogabetu egin behar dio.

(1) C 175 EO, 2007.7.27koa, 85. or.

(2) C 305 EO, 2007.12.15koa, 11. or.

(3) Europako Parlamentuaren irizpena, 2007ko uztailaren 11koa (C 175 E EO, 07.12.10koa, 371 or.); Kontseiluaren Jarrera Bateratua, 2008ko apirilaren 18koa (C 129 E EO, 2008.05.27koa, 1. or.); eta Europako Parlamentuaren Jarrera, 2008ko uztailaren 9koa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea).

L 240 EO, 1992.08.24koa, 1. or.

(5) L 240 EO, 1992.08.24koa, 8. or.

(6) L 240 EO, 1992.08.24koa, 15. or.

1008/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 293/3, 2008/10/31koa).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(7) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 785/2004 (EE) Erregelamenduak, hegazkin-konpainiei eta aire-operadoreen aseguru-baldintzak arautzekoak ezarritakoari jarraiki, hegazkin-konpainia batek aseguruak izenpetu behar ditu istripuetan bidaiariei, kargari eta hirugarrenei eragin dakizkiekeen kalteak estaltzeko. Komeni da hegazkin-konpainiak aseguruak izenpetu ditzaten behartzea, postarekin gerta daitezkeen istripuak estaltzeko.

(8) Erkidegokoak ez diren herrialdeetan matrikulatutako hegazkinen errentamendu-kontratuen erabilera gehiegizkoa izan ez dadin —tripulazio eta guzti egindako alokairua, batez ere— aukera hori ezohiko egoeretan soilik baimendu behar da: erkidegoko merkatuan tripulazio egokirik ez dagoenean, esaterako. Aukera horrek, gainera, denbora mugatua izan behar du, eta Erkidegoko nahiz estatuko legerian ezarritakoan baliokide diren segurtasun-neurriak bete behar ditu.

(9) Estatu kideek zaindu behar dute Erkidegoko eta estatuko lan-legeria behar bezala aplikatzen zaiela Erkidegoko hegazkin-konpainia bateko langileei, konpainiak establezimendu nagusia duen estatu kideko lurraldetik kanpo dagoen base operatibo batetik aire-zerbitzuak ematen dituenean.

(10) Hegazkintzaren barne-merkatua osorik garatu dadin, estatu kideen artean oraindik indarrean dauden murrizketak kendu egin behar dira: beste herrialde batzuetara egindako ibilbideetan, kode partekatuan egindako hegaldietan aplikatzen direnak adibidez, edo beste estatu kide batean geldialdia eginez Erkidegotik kanpoko herrialde batzuetarako ibilbideetan prezioak finkatzean ezartzen direnak (seigarren askatasuneko hegaldiak).

(11) Eskualde ultraperiferikoen ezaugarri bereziak eta mugak kontuan hartzeko (haien urruntasun geografikoa, uharte-izaera edo tamaina txikia, bereziki), eta Erkidegoko erdialdeko eskualdeekin lotura egokiak ezarri beharra kontuan hartzeko, neurri bereziak hartuko dira eskualde horietarako ibilbideetan zerbitzu publikoko betebeharra ziurtatzeko.

(12) Argi eta garbi zehaztu behar da nahitaezko zerbitzu publikoak zer baldintzatan ezar daitezkeen, eta horiek esleitzeko lizitazio-prozeduretan behar besteko lehiakide-kopuru batek parte hartzeko aukera duela bermatu behar da. Kasu zehatzetan nahitaezko zerbitzu publikoen justifikazio ekonomikoak aztertzeko, Batzordeak behar duen informazio guztia lortzeko aukera izan behar du.

(13) Hiri berari edo hiri-aglomerazio berari zerbitzua ematen dioten aireportuen artean aire-zirkulazioaren banaketari buruz indarrean dauden arauak argitu eta sinplifikatu egin behar dira.

(14) Zenbait egoera bat-bateko eta saihestezinek alde praktikoan nahiz teknikoan aire-zerbitzuak emateko eragozpen handiak sortzen dituzte, eta komeni da estatu kideek horrelakoetan sortzen diren arazoei aurre egiteko erreakzionatzeko aukera izatea.

(15) Bezeroek txartelek eta pleitek zer prezio dituzten jakiteko aukera izan behar dute, edozein dela erkidegoan duten bizilekua, edozein dela haien nazionalitatea, edozein dela erkidegoan bidaia-agentziek duten egoitza.

(16) Bezeroek aukera izan behar dute hegazkin-konpainien aire-zerbitzuen prezioak benetan alderatzeko. Beraz, abiapuntua Erkidegoan duten bidaietan, bezeroak behin betikoz zenbat ordaindu behar duen adierazi behar da, zergak, tasak eta kanonak barne. Abiapuntua beste herrialde batzuetan eta helmuga Erkidegoan duten zerbitzuak direnean ere, hegazkin-konpainiei animatzen zaie aire-zerbitzuen behin betiko prezioa adieraz dezaten.

(17) Erregelamendu hau aplikatzeko behar diren neurriak 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468 Erabakian (EE) ezarritakoaren arabera hartuko dira. Erabaki horretan ezarrita dago zer prozedura bete behar dituen Batzordeak berari dagozkion eskumenak betearazteko ⁽¹⁾.

(18) Erregelamendu honen helburua —hegazkintzaren barne-merkatuarekin lotutako Erkidegoko legeria modu homogeenagoan aplikatzea, alegia— estatu kideek beren kabuz behar bezala bete ezin dutenez aire-garraioa nazioartekoa delako, Erkidego-mailan egingo da, aukera gehiago baitaude helburua lortzeko. Izan ere, Erkidegoak neurriak hartzeko aukera du, Tratatuaren 5. artikuluan emandako subsidiarioratasun-printzipioaren arabera. Artikulu horretan adierazitako proportzionaltasun-printzipioaren arabera, Erregelamendu honek helburu horiek lortzeko beharrezko neurriak besterik ez ditu hartzen.

(19) Gibraltarko Aireportuari buruzko ministro-deklarazioak —Kordoban, 2006ko irailaren 18an, Gibraltari buruzko Elkarriketa Foroko lehen ministro-bileran hartutakoa— 1987ko abenduaren 2an, aireportuari buruz Londresen egindako Adierazpena ordeztuko du. Hala, hura osorik betetzeak 1987ko adierazpena betetzat hartzen dela esan nahiko du.

(20) Horrenbestez, 2407/92/EE, 2408/92/EE eta 2409/92/EE Erregelamenduak indargabetu egin behar dira.

ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

(1) L 184 EO, 1999.07.17koa, 23. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Xedea

1. Erregelamendu honek, batetik, Erkidegoko hegazkin-konpainien lizentzien emakidak arautzen ditu; bestetik, Erkidegoko hegazkin-konpainiek Erkidego barneko aire-zerbitzuak ustiatzeko duten eskubidea, eta azkenik, Erkidego barneko aire-zerbitzuen prezioak.

2. Gibraltarko aireportuari Erregelamendu honen III. Kapituluaren arabera aplikatuko zaio, aireportua dagoen lurraldeari buruzko soberaniaren gaineko eztabaidan Espainiako eta Erresuma Batuko erreinuen dituzten jarrera juridikoak kaltetu gabe.

2. artikulua

Definizioak

Erregelamendu honetan, hitz hauek definizio hau dute:

1) «ustiapen-lizentzia»: lizentziak emateko agintaritza eskudunak enpresa bati emandako baimena da; horri esker, enpresa horrek aire-zerbitzuak eman ditzake lizentzian azaldutako baldintzetan;

2) «lizentziak emateko agintaritza eskuduna»: II. kapituluaren arabera, ustiapen-lizentzia bat eman, ukatu, baliogabetu edo kentzeko eskubidea duen estatu kide bateko agintaritza;

3) «enpresa»: irabazi-asmoak dituen edo ez dituen edozein pertsona fisiko nahiz juridiko, edo izaera juridiko propioa duen edo ez duen edozein erakunde ofizial;

4) «aire-zerbitzua»: bidaiariak, karga edo posta garraiatzeko hegaldi bat edo hegaldi batzuk, trukean diru bat ordainduz egiten direnak, edo bestela, alokairu bat ordainduz;

5) «hegaldia»: aireportu jakin batetik helmuga jakin bateko beste baterantz irtetea;

6) «tokiko hegaldia»: bidaiariak, karga edo posta aireportu batetik beste batera edo lur hartzeko baimendutako beste puntu batzuetara garraiatzen ez dituen hegaldia;

7) «aireportua»: estatu kide batean aire-zerbitzuetara bereziki egokitutako edozein gune;

8) «aire-operadorearen ziurtagiria»: enpresa bati emandako ziurtagiria, ziurtatzen duena, bertan espezifikatutako lanen segurtasuna bermatzeko behar besteko lanerako gaitasuna eta antolaketa duela operatzaileak, aplikatu beharreko Erkidegoko Zuzenbidearen xedapenetan edo estatuko araudian aurreikusitakoari jarraiki, egokia denaren arabera;

9) «kontrol eraginkorra»: eskubideek, kontratuek edo beste edozein baliabidek osatutako zerrenda, bereizita edo elkartuta, eta egitatezko edo zuzenbidezko elementuak kontuan hartuta, enpresa baten gainean eragin erabakigarria izateko aukera ematen dutenak (zuzenean edo zeharka), bereziki honako hauen bidez:

a) enpresa baten aktiboak osorik edo zati bat erabiltzeko eskubidea;

b) enpresa baten organoen osaeran, bozketetan edo erabakietan eragin erabakigarria izatea eragiten duten eskubideak edo kontratua, edo, beste baliabide batzuk erabiliz, enpresaren jardueren kudeaketan eragin erabakigarria izatea eragiten dutenak.

10) «hegazkin-konpainia»: ustiapen-lizentzia baliozko bat edo haren baliokidea duen enpresa;

11) «Erkidegoko hegazkin-konpainia»: II. kapituluaren arabera, lizentziak emateko agintaritza eskudunak emandako ustiapen-lizentzia baliozko bat duen hegazkin-konpainia oro;

(12) «negozio-plana»: hegazkin-konpainiak delako aldirako aurreikusita dituen merkataritza-jardueren deskribapen zehatza; bereziki merkatuak zer bilakaera izatea espero den eta aurreikusitako inbertsioak zenbatekoak izango diren adieraztekoa, jardueren finantza- eta ekonomia-ondorioak barne.

1008/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 293/3, 2008/10/31koa).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- 13) «erkidego barneko aire-zerbitzua»: Erkidegoaren barnean emandako aire-zerbitzua;
- 14) «zirkulazio-eskubidea»: Erkidegoko bi aireporturen artean aire-zerbitzu bat ustiatzeko eskubidea;
- 15) «eserlekuen salmenta bakarrik»: eserlekuen salmenta, beste zerbitzurik gehitu gabe (ostatua hartzea, adibidez), hegazkin-konpainiak zuzenean jendeari egitea edo bestela, baimendutako agente edo pleitari batek;
- 16) «aire-zerbitzu erregularra»: honako ezaugarri hauek biltzen dituzten hegaldiak:
- a) hegaldi bakoitzean jendeak banaka eros ditzakeen eserlekuak eta kargarako lekua izatea (hegazkin-konpainiari zuzenean erosiz edo baimendutako agenteen bitartez);
- b) behar bezala antolatuta izatea, bi aireporturen edo gehiagoren arteko zirkulazioa bermatzeko moduan:
- argitaratutako ordutegi baten arabera, edo
- serie sistematiko argi bat osatzeko moduko erregularotasunarekin edo maiztasunarekin;
- 17) «edukiera»: denbora jakin batean aire-zerbitzu erregular batean jendeari eskainitako eserleku-kopurua edo karga erabilgarria;
- 18) «hegaldien prezioak»: aire-zerbitzuetan bidaiariak garraiatzeagatik hegazkin-konpainiei edo beren agenteei nahiz bestelako txartel-saltzaileei ordaindu beharreko prezioak, eurotan edo tokiko dirutan adierazita. Horrekin batera, prezio horiek aplikatzeko baldintzak adierazten dira, agentziari eta beste zerbitzu laguntzaile batzuei ordaindu beharrekoa eta eskainitako baldintzak barne daudela;
- 19) «aire-pleitak»: karga garraiatzeagatik ordaindu beharreko prezioak eurotan edo tokiko dirutan. Prezio horiek aplikatzeko baldintzak ere adierazten dira, agentziari eta beste zerbitzu lagungarri batzuei ordaindu beharrekoa eta eskainitako baldintzak barne daudela;
- 20) «Interesdun d(ir)en estatu kidea(k)»: aire-zerbitzuaren jomuga den estatu kidea edo estatu batetik besterako zerbitzuaren jomuga diren estatu kideak;
- 21) «Partaide diren estatu-kide guztiak»: interesdun diren estatu kide guztiak eta aire-zerbitzua ematen duten hegazkin-konpainiei lizentzia eman dieten estatu kideak.
- 22) «hiri-aglomerazioa»: zenbait herriz osatutako hirigune bat, biztanleria haztearen eta zabaltzearen ondorioz, herriak bat egin eta eraikitako gunerari bat osatzen dutenak;
- 23) «barne-kontabilitatea edo kontabilitate analitikoa»: delako aldian hegazkin-konpainia batek dituen diru-sarreraren eta gastuen zerrenda zehatza. Zerrenda horretan, alde batetik, aire-garraioarekin lotutako ekintzak agertuko dira banakatuta, eta bestetik, diru-elementuak eta diru-elementuak ez direnak.
- 24) «tripulaziorik gabe alokatzeko akordioa»: enpresen arteko akordioa, aireontziak errentariaren aire-operadorearen ziurtagiriarekin lan egiteko;
- 25) «tripulazioarekin alokatzeko akordioa»: hegazkin-konpainien arteko akordioa, aireontziak errentatzailearen aire-operadorearen ziurtagiriarekin lan egiteko.
- 26) «jarduera nagusiko egoitza»: Erkidegoko hegazkin-konpainia batek estatu kide batean duen egoitza soziala, finantza-eginkizun eta kontrol operatibo nagusiak egiteko erabiltzen dena, Erkidegoko hegazkin-konpainiaren aireko nabigagarritasunaren etengabeko kudeaketa barne.

II. KAPITULUA

USTIAPEN-LIZENTZIA

3. artikulua

Ustiapen-lizentzia

1008/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 293/3, 2008/10/31koa).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Erkidegoan egoitza duten enpresei, dagokien ustiapen-lizentzia eman ez badiete, ez zaie utziko airez bidaiaririk, postarik edo kargarik garraiatzen ordainketa edo alokairu baten trukean. Kapitulu honetako baldintzak betetzen dituzten enpresek ustiapen-lizentzia jasotzeko eskubidea izango dute.
2. Lizentziak emateko agintaritzak eskudunak ez du ustiapen-lizentziarik emango eta ez ditu indarrean edukiko, kapitulu honetako baldintzak betetzen ez direnean.
3. Erkidegoko, estatuetako edo nazioarteko Zuzenbidean aplika daitekeen beste edozein xedapen bete egin behar bada ere, aire-zerbitzuetako honako maila hauek ez dute ustiapen-lizentzia baliozkoa edukitzeko obligazioa izango:
 - a) motorrik gabeko aireontziek edo motordun ultrarinek egindako aire-zerbitzuek, eta
 - b) tokiko hegaldiek.

4. artikulua

Ustiapen-lizentzia emateko baldintzak

Estatu kide batean lizentziak emateko agintaritzak eskudunak enpresei ustiapen-lizentziak emango dizkie, baldin eta:

- a) beren jarduera nagusiaren egoitza aipaturako estatu-kidean badute;
- b) estatu kide bereko agintari nazional batek emandako aire-operadorearen baliozko ziurtagiriaren titularrak badira, eta lizentziak emateko bertako agintaritzak eskuduna bada Erkidegoko hegazkin-konpainiari ustiapen-lizentzia emateaz, ukatzeaz, baliogabetzeaz edo kentzeaz arduratzen dena;
- c) aireontzi bat edo gehiago baditu, jabetzan edo tripulaziorik gabe alokatzeko akordio bidez;
- d) jarduera nagusia aire-zerbitzuak egitea badu, den bera bakarrik, den aireontzien beste edozein merkataritza-ustiapenekin batera edo airontzien konponketa- eta mantentze-lanen beste ustiapenekin batera;
- e) enpresa-egitura dela eta, lizentziak emateko agintaritzak eskudunak kapitulu honetako xedapenak aplikatu badiezazkioke;
- f) konpainiaren jabetzaren % 50 baino gehiago, bai eta kontrol eraginkorra ere (zuzeneko nahiz bitartekari-lanak egiten dituzten enpresen bitartez) estatu kideen edo horietako nazionalitatea duen norbaiten esku badago, non eta Erkidegoak beste herrialde batzuekin egindako akordioetan beste zerbait xedatzen ez den.
- g) 5. artikuluan espezifikaturako finantza-baldintzak betetzen badituzte;
- h) 11. artikuluan eta 785/2004 Erregelamenduan (EE) aurreikusitako aseguru-baldintzak betetzen badituzte, eta
- i) 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, izen onari buruz xedaturakoa betetzen badu.

5. artikulua

Ustiapen-lizentzia emateko finantza-baldintzak

1. Lizentziak emateko agintaritzak eskudunak zorrotz erabakiko du ustiapen-lizentzia lehenengoz eskatzen duen enpresa batek honako hauek egiaztatzen dituen edo ez:

- a) hartu dituen edo har ditzakeen betebeharrei edozein unetan aurre egiteko gai dela, irizpide errealisten arabera erabakita, ustiapena hasi eta 24 hilabeteko epean, eta
- b) gai dela ustiapena hasi eta hiru hilabeteko epean enpresaren negozio-planeko jardueretatik sortutako gastu finkoei eta funtzionamendu-gastuei aurre egiteko. Irizpide errealisten arabera kalkulaturako gastu finkoak eta funtzionamendu-gastuak izan behar dute, eta ez dira kontuan hartuko aldi horretan ustiapenak eragindako diru-sarrerak.

2. 1. paragrafoak adierazten duena balioztatzeko, eskaera egiten duen enpresa orok negozio-plan bat aurkeztu beharko du, gutxienez ustiapeneko lehen hiru urteak jasotzen dituen. Negozio-planean adierazi beharko dira, baita ere, eskatzailearen eta hark parte-hartzen duen merkataritza-izaerako beste edozein jardueraren arteko finantza-loturak, zuzenean izan, lotutako enpresen bidezkoak izan. Eskatzaileak egokia den informazio guztia ere emango du, I. eranskinetako 1. puntuan zerrendatzen diren datuak bereziki.

1008/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 293/3, 2008/10/31koa).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. 1. eta 2. paragrafoak ez zaizkie aplikatuko aieratzean 10 tona baino gutxiagoko gehieneko masa duten edo 20 eserleku baino gutxiago dituzten aireontziekin lanak egiteko ustiapen-lizentzia eskatzen duten enpresei. Enpresa horiek beren kapital garbia gutxienez 100.000 eurokoa dela egiaztatu beharko dute, edo bestela, lizentzia emateko eskumena duen agintaritzari balioztatzea egiteko egokia den informazio guztia emango diote, hark hala eskatzen dionean. 1. paragrafoak adierazten duen balioztatzerako egingo da hori, eta bereziki, I. eranskineko 1. puntuan ezartzen diren datuak emango dizkiote.

Nolanahi ere, lizentziak emateko agintaritza eskudunak ustiapen-lizentzia eskatzen duten enpresei 1. eta 2. paragrafoak aplikatu ahal izango dizkie, aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera, airez egindako garraioaren zerbitzu erregularrak eskaintzen badituzte edo urtean 3 milioi eurotik gorako negozio-bolumena badute.

6. artikulua

Aire-operadorearen ziurtagiria

1. Une jakin batean ustiapen-lizentzia baliozkoa den jakiteko edo lizentzia hori emateko, aire-operadorearen baliozko ziurtagiri bat izan beharko da. Ziurtagiri horretan ustiapen-lizentziak estaltzen dituen jarduerak espezifikatuko dira.
2. Erkidegoko hegazkin-konpainia baten aire-operadorearen ziurtagirian egindako aldaketa oro ustiapen-lizentzian azalduko da, dagokion moduan.

7. artikulua

Izen ona izatearen froga

1. Ustiapen-lizentzia emateko xedez, enpresako jarduerak jarraian eta eraginkortasunez zuzenduko dituzten pertsonen beren izen ona edo porrot egin ez dutela frogatzea eskatzen zaienean, lizentziak emateko agintaritza eskudunak estatu kideetako nazionalitatea dutenentzat honako froga hau nahikoa dela onartuko du: pertsona horren jatorrizko estatu kideko edo pertsona horren egoitza egonkorra den estatu kideko agintaritza eskudunak emandako agiriak aurkeztea; alegia, baldintza horiek betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak.
2. Jatorrizko estatu kideak edo pertsona horren egoitza iraunkorra den estatu kideak 1. paragrafoan aipatutako agiriak ematen ez baditu, haien ordezkari interesdunak egindako zinpeko aitortpen bat —edo adierazpen irmo bat, zinpeko aitortpenak legedian aintzat hartuta ez dauden estatu-kideetan— aurkeztuko da jatorrizko estatu kideko edo egoitza iraunkorra den estatu kideko eskumena duen administrazio- edo zuzenbide-agintaritza baten aurrean, edo egokia bada, notario edo lanbide-erakunde kualifikatu baten aurrean. Agintaritza, notario, edo lanbide-erakunde kualifikatu horrek zinpeko aitortpenaren edo adierazpen irmoaren fede ematen duen ziurtagiri bat emango du.
3. Lizentziak emateko agintaritza eskudunak eskatu ahal izango du 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako agiriak eta ziurtagiriak egiten direnetik hiru hilabeteko epean aurkeztea.

8. artikulua

Ustiapen-lizentzia baten baliozkotasuna

1. Ustiapen-lizentzia baliozkoa izango da, Erkidegoko hegazkin-konpainiak kapitulu honetako baldintzak betetzen dituen bitartean. Erkidegoko hegazkin-konpainiek frogatu beharko dute kapitulu honetako baldintza guztiak betetzen dituztela lizentziak emateko agintaritza eskudunak hala eskatzen dion edozein unetan.
2. Lizentziak emateko agintaritza eskudunak arreta handiz kontrolatuko du kapitulu honetako baldintzak betetzen diren. Nolanahi ere, baldintza horiek honako kasu hauetan betetzen diren aztertuko du:
 - a) ustiatzeko beste lizentzia bat ematen denetik bi urtera;
 - b) arazo bat izan daitekeela susmatzen denean, edo
 - c) Batzordeak hala eskatuta. Lizentziak emateko agintaritza eskudunak susmatzen badu Erkidegoko hegazkin-konpainia batek dituen finantza-arazoek bere operazioen segurtasuna arriskuan jar dezaketela, berehala jakinaraziko dio aire-operadorearen ziurtagiria ematen duen agintaritza eskudunari.
3. Ustiapen-lizentzia berriro onartu beharko da, baldin eta Erkidegoko hegazkin-konpainia:

1008/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 293/3, 2008/10/31koa).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

a) ustiapen-lizentzia ematen denetik sei hilabeteko epean lanean hasi ez bada;

b) bere operazioak sei hilabetez edo gehiagoz eten baditu, edo

c) lizentzia 5. artikuluan, 3. paragrafoan, lehen lerrokadan oinarrituta lortu badu eta 5. artikuluan, 3. paragrafoan espezifikatutako neurria baino neurri handiagoko aireontziekin lanean aritzeko asmoa badu; bai eta aipatutako xedapenetan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu.

4. Erkidegoko hegazkin-konpainiek kontuak ikuskatuta aurkeztu beharko dizkiete lizentziak emateko agintaritzak eskudunei. Horretarako, gehienez ere, dagokion finantza-ekitaldiaren azken egunetik sei hilabete izango dituzte, baldin eta estatuetako legerian beste zerbait aurreikusten ez bada. Erkidegoko hegazkin-konpainia baten ustiapenaren lehen bi urteetan, lizentziak emateko agintaritzak eskudunaren esku jarriko dira I. eranskineko 3. puntuak adierazten dituen datuak, hark eskatu ondoren.

Lizentziak emateko agintaritzak eskudunak uneoro ebaluatu ahal izango du ustiapen-lizentzia bat jaso duen Erkidegoko hegazkin-konpainia ororen finantza-egoera; horrekin batera, egokia den informazio oro ere eskatu ahal izango dio. Ebaluazio hori egiteko xedez, aztertuko den Erkidegoko hegazkin-konpainiak I. eranskineko 3. puntuan jasotako datuak eguneratuko ditu, eta lizentziak emateko agintaritzak eskudunari emango dizkio, hark eskatu ondoren.

5. Erkidegoko hegazkin-konpainiek lizentziak emateko agintaritzak eskudunei hau jakinarazi beharko diote:

a) garaiz, lehenago zerbitzurik ez zuten kontinenteko edo munduko eskualdeetara aire-zerbitzu berri bat egiteko planak edo beren jardueren neurri-aldaketa garrantzitsu oro; horren barnean sartzen dira erabili diren aireontzi-motan edo aireontzien kopuruan izandako aldaketak, baina ez horiek bakarrik.

b) garaiz, beste konpainia batekin bat egiteko edo konpainia bat erosteko edozein proiektu, eta

c) 14 eguneko epean, Erkidegoko hegazkin-konpainiaren, haren sozietate nagusiaren edo partaidetzazko azken sozietatearen edozein akzio-zorroren jabetzan izandako aldaketa guztiak, baldin eta akzio-zorro horiek gutxienez haien akzio guztien % 10 badira.

6. Lizentziak emateko agintaritzak eskudunak uste badute 5. paragrafoaren arabera jakinarazitako aldaketek Erkidegoko hegazkin-konpainiaren finantza-egoeran eragin garrantzitsua dutela, negozio-plan berrikusi bat aurkezteko eskatuko dute. Negozio-plan horretan aldaketa horiek azaldu beharko dira eta, gutxienez, aplikatzen hasten den egunetik 12 hilabeteko epea hartuko du bere baitan; horrekin batera, negozio-planak I. eranskineko 2. puntuak adierazten dituen datuak jaso beharko ditu, bai eta 4. paragrafoan xedatutakoaren arabera eman behar den informazioa ere.

Lizentziak emateko agintaritzak eskudunak negozio-plan berrikusiarri buruz erabakiko dute; alegia, adieraziko dute Erkidegoko hegazkin-konpainiak baduen, lehen aipatutako 12 hilabeteko epean, betebeharrak eta sortzen zaizkion betebeharrak bere gain hartzeko gaitasunik. Erabaki hori, beranduenez ere, beharrezko informazio guztia aurkeztu eta hurrengo hiru hilabeteetan hartuko da.

7. Ustiapen-lizentzia jaso duen Erkidegoko hegazkin-konpainia batean egoera juridikoa aldatzea dakarren elementu-aldaketaren bat gertatzen bada, eta bereziki bat-egiteetan edo erosketetan, lizentziak emateko agintaritzak eskudunak erabakiko du lizentzia hori berriro ere onartu behar den.

8. Artikulu honetako 4., 5. eta 6. paragrafoak ez zaizkie aplikatuko aireratzean gehienez ere 10 tona baino gutxiagoko masa duten edo 20 eserleku baino gutxiago dituzten aireontziekin bakar-bakarrik lan egiten duten Erkidegoko hegazkin-konpainiei. Enpresa horiek beren kapital garbia gutxienez 100.000 eurokoa dela egiaztatzeko gai izan behar dute uneoro, edo bestela, 9. artikuluan, 2. paragrafoan adierazten duen balioespena egiteko beharrezkoak diren datuak eman behar dizkio lizentzia emateko agintaritzak eskudunari, hark hala eskatzen dionean.

Nolanahi ere, lizentziak emateko agintaritzak eskudunak 4., 5. eta 6. paragrafoak aplikatu ahal izango dizkie lizentziak jaso dituzten Erkidegoko hegazkin-konpainiei, aire-garraiorako zerbitzu erregularrak eskaintzen badituzte edo 3 milioi euroko negozio-bolumena gainditzen badute.

9. artikulua

Ustiapen-lizentzia etetea eta baliogabetzea

1. Lizentziak emateko agintaritzak eskudunak uneoro ebaluatu ahal izango du zein den lizentzia eman dion Erkidegoko hegazkin-konpainia baten finantza-egoera. Ebaluazio horretan oinarrituta, agintariek ustiapen-lizentzia eten edo baliogabetu dezakete, baldin eta jakiten badute Erkidegoko hegazkin-konpainia hori ez dela gai hartu dituen edo har ditzakeen betebeharrei 12

1008/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 293/3, 2008/10/31koa).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

hilabeteko epean aurre egiteko. Nolanahi ere, lizentziak emateko agintaritza eskudunak aldi baterako lizentzia eman ahal izango du, 12 hilabeterako gehienez ere, Erkidegoko hegazkin-konpainiak berriz ere finantza-berrantolaketa egiten duen bitartean, baldin eta horrek ez badu segurtasun-arriskurik sortzen, aldi baterako lizentzia horrek egin diren aldaketak aire-operadorearen ziurtagiria adierazten baditu, dagokion moduan, eta epe horren barruan berriz ere finantza-eraketa egiteko plan errealista bat badago.

2. Finantza-zailtasunen zantzu argiak daudenean, edo lizentzia jaso duen Erkidegoko hegazkin-konpainia baten aurka kaudimengabezia prozedura bat edo antzekoren bat hasi denean, lizentziak emateko agintaritza eskudunak finantza-egoerari buruzko azterketa sakona egingo du berehala. Handik ateratako ondorioetan oinarrituta, ustiapen-lizentziaren egoera aztertuko du berriro, artikuluko honen arabera, hiru hilabeteko epean.

Lizentziak emateko agintaritza eskudunak Batzordeari jakinaraziko dio ustiapen-lizentziaren egoeraren gainean zer erabaki hartzen duen.

3. Artikulu horretan adierazitako epearen barruan, 8. artikuluko 4. paragrafoak aipatzen dituen kontu ikuskatuak jakinarazi ez badira, lizentziak emateko agintaritza eskudunak Erkidegoko hegazkin-konpainiari eskatuko dio kontu ikuskatuak berehala jakinarazteko.

Ikuskatutako kontuak hilabeteko epean jakinarazten ez badira, ustiapen-lizentzia baliogabetu edo eten ahal izango da.

4. Lizentziak emateko agintaritza eskudunak ustiapen-lizentzia baliogabetu edo etengo du, baldin eta hegazkin-konpainiak gai espezifiko bati buruzko datu faltsuak ematen baditu, nahita edo oharkabean.

5. Erkidegoko hegazkin-konpainia bateko aire-operadorearen ziurtagiria eten edo kentzen bada, lizentziak emateko agintaritza eskudunak konpainia horren ustiapen-lizentzia eten edo baliogabetuko du berehala.

6. Lizentziak emateko agintaritza eskudunak Erkidegoko hegazkin-konpainia bati ustiapen-lizentzia baliogabetu edo etengo dio, baldin eta 7. artikuluan izen onarekin lotuta ezarritako baldintzak betetzen ez baditu.

10. artikulua

Ustiapen-lizentziei buruzko erabakiak

1. Lizentziak emateko agintaritza eskudunak lehenbailehen hartu beharko du eskaerari buruzko erabakia, beharrezko informazio guztia aurkezten denetik hiru hilabeteko epean gehienez ere, eta eskuragarri dauden elementu guztiak hartuko ditu kontuan. Erabakia eskatzaileari jakinaraziko zaio. Ukatzen bada, zergatik ukatu den arrazoitu beharko da.

2. Lizentziak emateko agintaritza eskudunak ustiapen-lizentziak emateari, eteteari eta baliogabetzeari buruzko prozedurak argitaratuko ditu, eta hori guztia Batzordeari jakinaraziko dio.

3. Lizentziak emateko agintaritza eskudunak ustiapen-lizentziak emateari, eteteari edo baliogabetzeari buruz hartutako erabakien zerrenda *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratuko da.

11. artikulua

Nahitaezko aseguruak

785/2004 Erregelamenduan (EE) xedatutakoaz gain, hegazkin-konpainiek aseguruak kontratatu beharko dituzte postan izandako istripuetan beren erantzukizuna estalita egon dadin.

12. artikulua

Matrikula

1. 13. artikuluan, 3. paragrafoan xedatutakoaz gain, Erkidegoko hegazkin-konpainia batek erabiltzen dituen aireontziek bere estatuko erregistroan edo Erkidegokoan matrikulatuta egon beharko dute, ustiapen-lizentzia eman duen agintaritza eskudunaren estatuak zer xedatzen duen.

2. 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera, agintaritza eskudunak, aplikatu beharreko erregelamenduei eta legeei jarraiki, onartu egingo dituzte bere estatuko erregistroan, atzerapenik eta tasa diskriminatzailearik gabe, bai beste estatu kide batzuetako

1008/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 293/3, 2008/10/31koa).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

nazionalitatea dutenen jabetzako aireontziak, bai eta beste estatu kide batzuetan erregistratutako aireontzien matrikulak lekualdatzea ere. Matrikula-tasa normalez gain, aireontzien transferentziari ez zaio beste tasarik aplikatuko.

13. artikulua

Alokairua

1. 4. artikuluan, c) letran ezarritakoa errespetatuz betiere, Erkidegoko hegazkin-konpainiek aireontzi bat edo gehiago izan ditzakete alokairuan, tripulazioarekin edo tripulaziorik gabe. Erkidegoko hegazkin-konpainiek Erkidegoan matrikulatutako aireontziak askatasun osoz ustiatu ahal izango dituzte alokairuan eta tripulazioarekin, egoera horrek segurtasunerako arriskuren bat sortzen duenean izan ezik. Batzordeak xedapen honen aplikazioa zentzuzkoa eta proportzionatua izatea bermatuko du, eta segurtasun-irizpideetan oinarritzea.

2. Aldez aurretik onartu beharko dira, batetik, Erkidegoko hegazkin-konpainia bat tartean den tripulaziorik gabe alokatzeko akordioak, eta bestetik, tripulazioarekin alokatzeko akordioak, tripulazioarekin alokatutako aireontziaren errentari Erkidegoko hegazkin-konpainia bihurtzen dutenak, eta onarpen hori hegazkintzaren segurtasun-alorrean aplikatu beharreko estatuetako edo Erkidegoko araudien arabera egingo da.

3. Erkidegotik kanpoko herrialderen batean matrikulatuta egon eta beste hegazkin-konpainia baten jabetzako den tripulaziodun aireontziak alokatzeko, Erkidegoko hegazkin-konpainiek aldez aurretiko baimena eskatu beharko diote lizentziak emateko agintaritza eskudunari. Agintaritza eskudunek baimena emango dute, baldin eta:

a) Erkidegoko hegazkin-konpainiak agintaritza eskudunei behar bezala erakusten badie segurtasun-neurri guztiak betetzen dituela; alegia, Erkidegoko edo estatuetako araudiek ezarritako arauen baliokide diren neurriak betetzen dituela, eta
b) honako baldintza hauetako bat betetzen bada:

i) Erkidegoko hegazkin-konpainiak alokairua ezohiko beharreatatik justifikatzea. Halakoetan, zazpi hilabete baino gehiago iraungo ez duen baimena eman ahal izango da, eta beste zazpi hilabetez luzatu ahal izango da, behin bakarrik.

ii) Erkidegoko hegazkin-konpainiak erakustea alokairua beharrezkoa dela sasoiaren arabera edukiera-beharrak asetzeko, Erkidegoan matrikulatutako aireontziak alokatuz behar bezala asebate ezin direlako. Halakoetan, onarpena berritu egin behar da, edo

iii) Erkidegoko hegazkin-konpainiak erakustea alokairua beharrezkoa dela ustiatzeko zailtasunak gainditzeko, eta horrekin batera, ezinezkoa dela edo ez dela zentzuzkoa Erkidegoan matrikulatutako aireontziak alokatzea. Halakoetan, baimena zailtasunak gainditzen diren arterakoa izango da soilik.

4. Agintaritza eskudunek baimena emateko baldintzak ezarri ahal izango dituzte. Baldintza horiek tripulaziodun alokairuaren kontratuaren atal izango dira.

Agintaritza eskudunek baimen bat ukatu ahal izango dute, baldin eta tripulaziodun alokairuaren gainean elkarrekikotasunik ez badago tartean dagoen estatu kidearen edo Erkidegoaren eta aireontzia (tripulaziodun alokairuaren xedea) matrikulatuta dagoen beste herrialdearen artean.

Agintaritza eskudunek interesdun diren estatu kideei jakinaraziko diete tripulaziodun aireontzi bat alokatzeko baimen oro, baldin eta Erkidegotik kanpoko herrialderen batean matrikulatutako aireontziak badira.

14. artikulua

Entzuna izateko eskubidea

Lizentziak emateko agintaritza eskudunak honako hau bermatuko du: Erkidegoko hegazkin-konpainia bati ustiapen-lizentzia eteteko edo baliogabetzeko erabakia hartzean, Erkidegoko hegazkin-konpainia interesdunari entzuna izateko aukera emango zaiola, kontuan izanda, zenbaitetan presako prozedura egitea beharrezkoa dela.

III. KAPITULUA

IBILBIDEAK ESKURATZEKO AUKERA

15. artikulua

1008/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 293/3, 2008/10/31koa).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Erkidegoaren barnean aire-zerbitzuak ematea

1. Erkidegoko aire-konpainiek Erkidegoaren barnean aire-zerbitzuak emateko eskubidea izango dute.
2. Estatu kideek Erkidegoko aire-konpainiei ez diete inolako baimenik eskatuko Erkidegoaren barnean aire-zerbitzuak emateko. Estatu kideek ez diete hegazkin-konpainiei eskatuko lizentziak emateko ardura duen agintariari dagoeneko emandako agiririk edo informaziorik eskatuko, baldin eta, behar denean, lizentziak emateko agintaritzak eskudunarengandik egokia den informazioa lortzeko aukera badago.
3. 26. artikuluko 2. paragrafoaren arabera lortutako informazioan oinarrituz, Batzordeak uste badu Erkidegoko hegazkin-konpainia bati emandako ustiapen-lizentziak ez dituela Erregelamendu honetako baldintzak betetzen, lizentziak emateko agintaritzak eskudunari bidaliko dizkio hark ateratako ondorioak. Agintaritzak eskudunak, berriz, berak egindako oharrak Batzordeari bidaliko dizkio 15 egun balioduneko epean.

Lizentziak emateko agintaritzak eskudunak aurkeztutako oharrak aztertu ondoren edo agintaritzak horrek oharrak jakinarazi ez badu, eta ustiapen-lizentziak baldintzak ez dituela betetzen pentsatzen jarraitzen badu Batzordeak, erabaki bat hartuko du. 25. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako prozeduraren arabera hartuko du, eta horren bitartez lizentziak emateko agintaritzak eskudunari eskatuko dio neurri zuzentzaileak egokiak har ditzala edo ustiapen-lizentzia eten edo baliogabetu dezala.

Erabakiak data bat ezarriko du, eta lizentziak emateko agintaritzak eskudunak data hori baino lehen aplikatu beharko dituzte neurri zuzentzaileak edo egingo dituzte dagozkien ekintzak. Finkatutako data baino lehen neurri zuzentzaileak aplikatzen ez badituzte edo dagozkien ekintzak egiten ez badituzte, Erkidegoko hegazkin-konpainia ez da gaituta egongo 1. paragrafoan jasotzen diren eskubideak gauzatzeko.

Erkidegoko hegazkin-konpainiak 1. paragrafoan jasotako eskubideak gauzaten jarraitu ahal izango du, lizentziak emateko agintaritzak eskudunak Batzordeari honako hau jakinarazi ondoren: neurri zuzentzaileak aplikatu direla eta lizentziak emateko agintaritzak eskudunak aplikazioa egiaztatu duela.

4. Erkidego barneko aire-zerbitzuak ustiatzean, Erkidegoko hegazkin-konpainia orok aire-zerbitzuak konbinatu eta kode partekatutako akordioak hitzartu ahal izango ditu; nolahi ere, enpresei aplikagarri zaien lehiari buruzko Erkidegoko araua bete beharko da.

Baliogabetu egingo da Erkidegoko hegazkin-konpainiek Erkidegoaren barnean aire-zerbitzuak askatasunez emateari buruzko edozein murrizketa, Estatu kideen artean egindako aldebiko akordioetatik eragindakoa bada.

5. Estatu kideen artean egindako aldebiko edozein akordiotan xedatutakoa edozer dela ere, estatu kide interesdunek Erkidegoko hegazkin-konpainiei honako hauek egiteko baimena emango diete: aire-zerbitzuak konbinatzeko eta aire-zerbitzuak ematen dituen edozein hegazkin-konpainiarekin kode partekatutako akordioak hitzartzeko, baldin eta azken hegazkin-konpainia horien abiapuntua, helmuga edo igarotze-lekua haren lurraldeko edozein aireportu bada edo beste herrialderen bateko edozein puntu. Dena den, enpresei aplikagarri zaien lehiari buruzko Erkidegoko araua bete behar dute.

Estatu kide batek murrizketak jarri ahal izango dizkio Erkidegoko hegazkin konpainien eta beste herrialde bateko hegazkin-konpainien arteko kode partekatutako akordioei, dagokion beste herrialdearekin aire-zerbitzuei buruz sinatutako aldebiko akordioaren esparruan; eta, bereziki, beste herrialde horrek, hain zuzen ere, aipatutako estatu kide horretatik lan egiten duten Erkidegoko hegazkin-konpainiei antzeko merkataritza-aukerak ez badizkie ematen. Jokabide horrekin, estatu kideek ziurtatuta izango dute, alde batetik, akordio horien esparruan ezarritako murrizketek ez dutela lehia murrizten, eta bestetik, hegazkin-konpainien artean diskriminaziorik ez dutela sortzen eta ez direla behar baino murriztaileagoak.

16. artikulua

Nahitaezko zerbitzu publikoen irizpide orokorrak

1. Beste estatu kide interesdunekin hitz egin ondoren eta Batzordeari nahiz dagokien aireportuei eta ibilbide horretan lan egiten duten hegazkin-konpainiei jakinarazi ondoren, estatu kide orok nahitaezko zerbitzu publikoa ezarri ahal izango du aire-zerbitzu erregularretan, honelako hegaldietarako: Erkidegoan dagoen aireportu baten estatuko eskualde periferiko bati edo garatzen ari den eskualde bati zerbitzua ematen dion aireportu baten artekoa; edo bestela, bere lurraldeko aireportu bati zerbitzua ematen dion zirkulazio gutxiko ibilbidea, ibilbide hori funtsezkotzat hartzen bada aireportuak zerbitzua ematen duen eskualdearen garapen ekonomikorako eta sozialerako. Betebehar hori aire-zerbitzu erregularren gutxieneko zerbitzua bermatzeko behar den neurrian ezarriko da soilik; alegia, hegazkin-konpainia batek merkataritza-interesari bakarrik erreparatuta bere gain hartuko ez lukeen jarraitutasuna, prezioen erregularutasuna edo gutxieneko edukiera bermatzeko.

1008/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 293/3, 2008/10/31koa).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Nahitaezko zerbitzu publikoari lotutako ibilbideari ezarritako baldintzak gardentasun osoz eta era ez diskriminatzailean ezarriko dira.

2. Beste garraibide batzuek etengabeko zerbitzua bermatu ezin dutenean, gutxienez egunean bi ibilbide eginez, estatu kide interesdunek nahitaezko zerbitzu publikoan baldintza hau sartu ahal izango dute: ibilbide horretan zerbitzuak ustiatu nahi dituen Erkidegoko edozein hegazkin-konpainiak berme bat ezartzea, denboraldi jakin batez ibilbide hori jarraitutasunez ustiatuko duela bermatzeko. Baldintza hori espezifikatu egin beharko da, nahitaezko zerbitzu publikoaren gainerako baldintzen arabera.

3. Estatu kideek aurreikusitako nahitaezko zerbitzu publikoa beharrezkoa eta egokia den ebaluatu beharko dute, honako hauek aintzat hartuz:

a) aurreikusitako betebeharraren eta dagokion eskualdearen ekonomia-garapenerako beharren artean proportzionala izatea;

b) beste garraibide batzuk erabiltzeko aukera izatea, kontuan hartuta zenbateko gaitasuna duten garraio-behar horiek asetzeko. Bereziki izango da aintzat, ibilbide hura hiru orduz azpitik betetzen duen tren-zerbitzurik badagoen (behar besteko maiztasuna eta loturak dituela, bai eta ordutegi egokiak ere).

c) hegaldien prezioak eta erabiltzaileei proposatuko zaizkien baldintzak;

d) ibilbidean lan egiten duten edo lan egin behar duten hegazkin-konpainia guztiek guztira emandako zerbitzuak.

4. Estatu kide batek nahitaezko zerbitzu publiko bat ezarri nahi duenean, haren testu osoa honako hauei jakinarazi behar die: Batzordeari, gainerako estatu-kide interesdunei, dagokien aireportuei eta delako ibilbidean lan egiten duten hegazkin-konpainiei.

Batzordeak informazio-ohar bat argitaratuko du *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean*, eta bertan:

a) delako ibilbideak lotzen dituen bi aireportuak aipatuko dira, eta baita geldialdia egiteko tartean zer puntu egon daitezkeen;

b) nahitaezko zerbitzu publikoa indarrean zer egunetan sartzen den aipatuko da, eta

c) informaziorako helbidea aipatuko da. Bertan, estatu kide interesdunak berehala eta doan eskainiko du dagokion nahitaezko zerbitzu publikoari buruzko testua eta beste edozein informazio edo dokumentazio.

5. 4. paragrafoan xedatutakoaz gain, urtean 10.000 bidaiari baino gutxiago izatea aurreikusita duten ibilbideei dagokienez, nahitaezko zerbitzu publikoari buruzko informazioa *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratuko da, edo bestela, dagokion estatu kidearen Egunkari Ofizialean.

6. Nahitaezko zerbitzu publikoa ezin izango da indarrean sartu, 4. paragrafoko bigarren lerrokadan aipatutako informazio-oharra argitaratu baino lehen.

7. 1. eta 2. paragrafoetan xedatutakoaren arabera nahitaezko zerbitzu publiko bat ezarri denean, eta delako aire-zerbitzuak nahitaezko zerbitzu publikoaren baldintza guztiak betetzen baditu Erkidegoko hegazkin-konpainiak eserlekuen salmenta egin ahal izango du. Horren guztiaren ondorioz, aire-zerbitzua aire-zerbitzu erregulartzat hartuko da.

8. 1. eta 2. paragrafoetan xedatutakoaren arabera nahitaezko zerbitzu publiko bat ezartzen denean, Erkidegoko gainerako hegazkin-konpainia guztiei utziko zaie aire-zerbitzu erregularrak edozein unetan egiten hastea, nahitaezko zerbitzu erregular horiek zerbitzu publikoaren baldintza guztiak betetzen badituzte. 2. paragrafoaren arabera eska daitezkeen ustiatzeko aldian ere egin ahal izango dute.

9. 8. paragrafoan xedatutakoaz gain, ibilbide batean Erkidegoko hegazkin-konpainia bakar bat ere ez bada aire-zerbitzu erregular iraunkorrik egiten hasi edo ezin badu frogatu zerbitzu hori berehala ematen hasiko dela (ibilbide horretarako ezarri diren nahitaezko zerbitzu publikoa betez), estatu kideak ibilbide horretako aire-zerbitzu erregularrak Erkidegoko hegazkin-konpainia bakar bati utzi ahal izango dizkio. Gehienez ere, lau urteko epean egin ahal izango du hori, eta hura gainditzean, egoera berriz aztertu beharko da.

Aldi hori bost urtez luzatu ahal izango da, baldin eta nahitaezko garraio publikoaren betebeharra zerbitzua eskualde ultraperiferiko bati ematen dion aireportu baterako ibilbide batean ezartzen bada, Tratatuaren 299. artikuluan, 2. paragrafoan aipatutako definizioaren arabera.

10. 9. paragrafoan aipatutako zerbitzuak ustiatzeko eskubidea lizitazio publikoaren bidez eskainiko zaio, 17. artikuluan arabera, horretarako gaituta dagoen Erkidegoko edozein hegazkin-konpainiari. Zerbitzu horiek bakarka eskaini ahal izango dira edo, lan-

1008/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 293/3, 2008/10/31koa).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

eraginkortasuneko arrazoiek justifikatzen dutenean, ibilbide-multzo moduan bilduta. Estatu kide orok ibilbide bat baino gehiagoko eskaintza argitaratu ahal izango du lizitazio bakar batean, administrazio-eraginkortasun arrazoiak tarteko.

11. Nahitaezko zerbitzu publikoa amaitutzat joko da aipatutako betebeharrari lotutako ibilbidean aire-garraio erregularreko zerbitzurik ez denean eman 12 hilabete baino gehiagoko aldian.

12. 17. artikuluari jarraiki hautatutako Erkidegoko hegazkin-konpainiak bat-batean zerbitzua emateari utziz gero, estatu kide interesdunak, presakoa bada, adostasunez beste hegazkin-konpainia bat hautatu ahal izango du. Hark, nahitaezko zerbitzu publikoan, gehienez ere zazpi hilabetez egingo du lan, luzatzeko aukerarik gabe, eta honako baldintza hauetan:

- a) estatu kideak ordaindutako kalte-ordain orok 17. artikuluko 8. paragrafoan xedatutakoa beteko du;
- b) hautaketa Erkidegoko hegazkin-konpainien artean egingo da, gardentasun eta diskriminaziorik eza irizpideak errespetatuz.
- c) beste lizitazio bat egingo da.

Batzordea eta interesdun diren estatu kideak berehala informatuko dituzte presako prozedurari buruz eta haren arrazoiez. Estatu kide batek edo batzuek eskatuta edo bere ekimenez, Batzordeak prozedura geldiarazi ahal izango du 25. artikuluko 2. paragrafoko prozedurari jarraiki. Horretarako, ordea, eta ebaluazioa egin ondoren, hark iritzi behar du prozedurak ez dituela paragrafo honetako aginduak betetzen edo edozein eratan Erkidegoko Zuzenbidearen aurkakoa dela.

17. artikulua

Nahitaezko zerbitzu publikoetarako lizitazio-prozedura

1. 16. artikuluko 10. paragrafoan agindutako lizitazio publikoa artikuluko 2. eta 10. paragrafoetan ezarritako prozedurari jarraiki egingo da.

2. Estatu kide interesdunak lizitazio-iragarkiaren testu osoaren berri emango dio Batzordeari, 16. artikuluko 5. paragrafoari jarraiki nahitaezko zerbitzu publikoa Estatuko Egunkari Ofizialean argitaratuz zabaldu badu izan ezik. Halakoetan, lizitazioa ere Estatuko Egunkari Ofizialean argitaratuko da.

3. Lizitazio-iragarkiak eta lizitazio-kontratuak honako puntu hauek hartuko dituzte barnean, besteak beste:

- a) nahitaezko zerbitzu publikoak eskatzen dituen zerbitzu-mailak;
- b) kontratuaren aldaketari eta amaierari buruzko arauak, ustekabeko aldaketak kontuan hartzeko xedez bereziki;
- c) kontratuaren balio-aldia;
- d) zigorak, kontratua ez betetzeak dakartzanak;
- e) parametro objektiboak eta gardenak. Haietan oinarrituz kalkulatu da, hala badagokio, nahitaezko zerbitzu publikoak betetzeagatik zer kalte-ordain dagoen.

4. Batzordeak *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratutako informazio-ohar baten bitartez jakinaraziko du lizitazioa. Eskaintzak aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, gutxienez, aipatutako informazio-ohar hori argitaratzen denetik kontatzen hasita. 16. artikuluko 9. paragrafoari jarraiki ibilbide batean hegazkin-konpainia bakar batek ematen duen zerbitzuari badagokio lizitazioa, lizitazio-iragarkia emakida berria hasi baino gutxienez sei hilabete lehenago argitaratuko da, zerbitzua emateko murrizketa horrek beharrezkoa izaten jarraitzen duen aztertzeko.

5. Informazio-oharrea honako elementu hauek azalduko dira:

- a) Estatu kide interesduna(k);
- b) dagokion aire-ibilbidea;
- c) kontratuaren iraupena;
- d) zer helbidetan jarriko duen estatu kideak interesdunen esku lizitazio publikoari eta nahitaezko zerbitzu publikoari buruzko informazio eta dokumentazio guztia;

1008/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 293/3, 2008/10/31koa).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

e) eskaintzak aurkezteko epea.

6. Estatu kideek berehala eta doan jakinaraziko diote interesdunari lizitazio publikorako eskatutako informazio eta dokumentazio oro.

7. Lizitazioaren epaia lehenbailehen emango da. Hautaketan honako alderdi hauek hartuko dira kontuan: alde batetik, eskaintako zerbitzua egokia den, eta erabiltzaileei zer prezio eta baldintza proposatuko zaizkien; eta, bestetik, interesa duten estatu kideak edo kideek zer kalte-ordain eman behar duten, beharrezkoa bada.

8. Estatu kide interesdunek, 7. paragrafoaren arabera hautatutako hegazkin-konpainiei nahitaezko zerbitzu publikoak betetzeak dakartzan gastuen kalte-ordainak ordaindu diezazkiekete, hain zuzen ere, 16. artikuluaaren arabera ezarrita daudenak. Kalte-ordainak ez du gairidituko nahitaezko zerbitzu publikoko betebeharrak bakoitza egiteagatik sortutako kostu garbiak estaltzeko behar den zenbatekoa, operatzaileak lortutako diru-sarrerak eta arazoizko mozkinak kontuan hartuta.

9. Lizitazio publikoaren emaitzen eta estatu kideak egindako hautaketaren berri emango zaio berehala eta idatziz Batzordeari. Jakinarazpenean hau agertuko da:

a) lizitatuaren enpresa-zenbakiak, -izenak eta -informazioa;

b) eskaintzetan agertzen diren elementu operatiboak;

c) eskaintzetan eskatutako kalte-ordainak;

d) hautatutako lizitatuaren izena.

10. Hilabeteko epean nahitaezko zerbitzu publiko bat ustiatzeko hegazkin-konpainia bat hautatzeari buruzko dokumentazio guztia bidaltzeko eskatu diezaiokete estatu kide bati Batzordeak, estatu kide batek eskatuta edo Batzordearen beraren ekimenez. Dokumentuak agindutako epean bidaltzen ez badira, Batzordeak lizitazioa eten ahal izango du, 25. artikuluko, 2. paragrafoko prozedurari jarraiki.

18. artikulua

Nahitaezko zerbitzu publikoen azterketa

1. Estatu kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, 16. eta 17. artikuluetako xedapenen arabera hartutako erabakiak berriz aztertzen direla bermatzeko, eta bereziki, lehenbailehen egiten direla bermatzeko, alegatu badaiteke erabaki horiek Erkidegoko legeria urratu dutela edo legeria hori aplikatzen duten estatuetako arauak urratu dituztela.

Bereziki, estatu kide batek eskatuta edo bere ekimenez, Batzordeak bi hilabeteko epean honako hauek bidaltzeko eskatu ahal izango die estatu kideei:

a) nahitaezko zerbitzu publikoa beharrezkoa dela eta 16. artikuluan aipatutako irizpideekin bat datorrela justifikatzeko agiri bat;

b) eskualdeko ekonomiaren azterketa bat;

c) aurreikusitako betebeharren eta garapen ekonomikoko helburuen arteko proportzionaltasunaren azterketa bat;

d) jada badiren aire-zerbitzuen azterketa, halakorik badago, eta baita aurreikusitako inposizioaren ordezkatzaile jo daitezkeen eta erabilgarri diren beste garraio-bideen azterketa ere.

2. 16. eta 17. artikuluetan xedatutakoaren arabera ibilbide baten garapena modu desegokian mugatzen ari dela irizten badu estatu kide batek Batzordeak ikerketa bat egingo du, hark eskatuta edo bere ekimenez. Hala, eskaera jasotzen denetik sei hilabeteko epean, eta 25. artikuluan, 2. paragrafoan aipatutako prozeduraren arabera, Batzordeak erabaki bat hartuko du. Erabaki hori, gainera, delako ibilbidean 16. eta 17. artikulua aplikatzen jarraitu behar diren edo ez erabakitzeko garrantzitsuak diren alderdi guztietan oinarrituta hartuko da.

19. artikulua

Aireportuen arteko zirkulazio-banaketa eta zirkulazio-eskubideak erabiltzea

1008/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 293/3, 2008/10/31koa).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Zirkulazio-eskubideak gauzatzea Erkidegoko, estatuetakoa, eskualdeetako eta tokian tokiko arau hauen mende egongo da: segurtasunari (barnekoa edo kanpoko), ingurumena babesteari eta geldialdi-ordutegiak izendatzeari buruzko arauen mende.

2. Alderdi interesdunekin hitz egin ondoren —dagokien hegazkin-konpainiak eta aireportuak barne—, estatu kideek aire-zirkulazioaren banaketa arautu ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituzten aireportuen artean (Erkidegoaren barneko helmugan artean diskriminaziorik izan gabe edo hegazkin-konpainiaren nazionalitatean edo identitatean oinarritutako diskriminaziorik gabe):

a) zerbitzua hiri edo hiri-aglomerazio berari ematea;

b) garraio-azpiegitura egoki batez komunikatuta egotea eta, ahal den neurrian, aireportura 90 minutuko epean iristeko zuzeneko lotura eskaintzen duena, baita muga bat gurutzatzea beharrezkoa denean ere;

c) zerbitzu publikoak sarritan izatea, horiek fidagarriak eta eraginkorrak izatea, eta aireportuen arteko komunikazioa bermatzearekin batera, hiriarekin edo hiri-aglomerazioarekin ere ongi komunikatzea, eta

d) aireportuek hegazkin-konpainiei beharrezko zerbitzuak ematea eta haien merkataritza-aukerak zilegi ez den eran kaltetzea.

Aireportuen arteko aire-zirkulazioaren banaketa arautzeko erabaki orok proportzionaltasunaren eta gardentasunaren printzipioak errespetatuko ditu, eta irizpide objektiboetan oinarrituko da.

3. Batzordeak Kontseiluari eta estatu kideei emango die bere erabakiaren berri. Estatu kide interesdunak Batzordeari jakinaraziko dio aire-zirkulazioaren banaketa arautzeko asmoa duela edo zirkulazioaren banaketari buruz dauden arauak aldatzeko asmoa duela. Batzordeak artikuluko 1. eta 2. paragrafoen aplikazioa aztertuko du eta, dagokion eskaera jasotzen denetik sei hilabeteko epean, estatu kideak delako neurriak aplikatu ditzakeen erabakiko du (25. artikuluko, 2. paragrafoko prozeduraren arabera).

Batzordeak bere erabakia *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratuko du eta neurriak ez dira aplikatuko Batzordearen onarpena argitaratu baino lehen.

4. Erregelamendua indarrean sartzeko unean dauden zirkulazio-banaketaren arauak dagokienez, Batzordeak 1. eta 2. paragrafoen aplikazioa aztertuko du, estatu kideak eskatuta edo Batzordearen beraren ekimenez; eta, ondoren, estatu kideak neurria aplikatzen jarraitu dezakeen edo ez erabakiko du, 25. artikuluan, 2. paragrafoan jasotako prozedurari jarraiki.

5. Artikulu honen arabera hartutako erabakia *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratuko du Batzordeak.

20. artikulua

Ingurumenari buruzko neurriak

1. Ingurumeneko arazo larriak daudenean, estatu kide arduradunak zirkulazio-eskubideak gauzatzea mugatu edo ukatu ahal izango du, eta, bereziki, zerbitzu-maila egokiak ematen dituzten beste garraiobide batzuk daudenean. Neurria ez da diskriminatzailea izango, ez du hegazkin-konpainien arteko lehia aldatuko, ez da arazoak konpontzeko behar dena baino murriztaileagoa izango eta indarraldi mugatua izango du (ez da hiru urte baino gehiagokoa izango). Indarraldia amaitzean, berriz aztertuko da.

2. Estatu kide batek uste badu 1. paragrafoak adierazten duen ekintza beharrezkoa dela, gainerako estatu kideei eta Batzordeari jakinaraziko die, neurria indarrean sartu baino hiru hilabete lehenago, gutxienez; ekintza hori zergatik egingo den ondo justifikatu beharko du, gainera. Ekintza gauzatu ahal izango da baldin eta, informazioa jasotzen denetik hilabeteko epean, estatu kideren batek haren aurka jotzen ez badu edo Batzordeak hura aztertzeko eskatzen ez badu, 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera.

3. Aldez aurretik beste estatu kide batek eskatuta edo bere ekimenez, Batzordeak, 25. artikuluan aipatutako prozeduraren arabera, neurriak eten ahal izango ditu 1. paragrafoan xedatutakoa betetzen ez badute edo beste eraren batean Erkidegoko Zuzenbidea urratzen badute.

21. artikulua

Premiazko neurriak

1. Estatu kide batek zirkulazio-eskubideak gauzatzeko baldintzak ukatu, mugatu edo inposatu ahal izango ditu, sortutako iraupen gutxiko bat-bateko arazoei aurre egiteko, hau da, aurreikusi ezin diren eta saihestezinak diren egoeretatik sortutako arazoei aurre

1008/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 293/3, 2008/10/31koa).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

egiteko. Neurri horiek proportzionaltasunaren eta gardentasunaren printzipioei egokituko zaizkie eta irizpide objektibo eta ez diskriminatzaileetan oinarrituta egongo dira.

Estatu kideak Batzordeari eta gainerako estatu kideei berehala jakinaraziko dizkie aipatutako neurriak, eta behar bezala justifikatuko ditu. Neurriak hartzea behartu duten arazoek 14 egun baino gehiagoz irauten badute, Estatu kideak horren berri eman beharko die Batzordeari eta gainerako estatu kideei. Hala, Batzordearekin adostuta, neurri horiek luzatu ahal izango ditu, 14 egun baino epe gehigarrietan luzatu ahal izango dira.

2. Tartean dagoen estatu kideak eskatuta edo bere ekimenez, Batzordeak neurri horiek eten ahal izango ditu 1. paragrafoko baldintzak betetzen ez badituzte edo edozein eratan Erkidegoko Zuzenbidearen aurka jotzen badute.

IV. KAPITULUA

PREZIOEI BURUZKO XEDAPENAK

22. artikulua

Prezioak finkatzeko askatasuna

1. Nolanahi ere, 16. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoa errespetatuz, Erkidegoko hegazkin-konpainiek eta, elkarrekikotasun irizpidean oinarrituta, Erkidegotik kanpokoek, askatasun osoz finkatuko dituzte Erkidego barneko aire-zerbitzuen prezioak eta pleitak.

2. Estatu kideen artean egindako edozein aldeko akordiotan xedatutakoa edozer dela ere, akordioek ezingo dute diskriminaziorik egin hegazkin-konpainiaren nazionalitate- edo identitate-arrazoiengatik; alegia, askatasun osoa utziko die Erkidegoko hegazkin-konpainiei beren lurraldearen eta beste herrialderen baten artean aire-zerbitzuak emateko prezioak eta pleitak finkatzeko. Baliogabetu egingo da Estatu kideen arteko aldeko akordioetatik sortu eta prezioak finkatzean aplikatzen den edozein murrizketa, abiapuntua edo helmuga Erkidegotik kanpoko herrialde batzuetan duten ibilbideei dagozkienak barne.

23. artikulua

Informazioa eta diskriminaziorik eza

1. Zerbitzuen jendearentzako prezioek edo pleitek aplikatu beharreko baldintzak adierazita edukiko dituzte beti, zerbitzuaren abiapuntua Trataturik aplikatzen zaion edozein estatu kideren lurraldean kokatutako aireportu bat bada. Horrek guztiak edozein eratan emandako edo argitaratutako prezioei eragiten die (Internetekoei ere bai). Ordaindu beharreko azken prezioa aipatuko da beti. Prezio horren barnean sartuko dira: aplikatu beharreko prezioa edo pleita, bai eta aplikatu beharreko zerga, kanon, errekaratu eta eskubide guztiak ere (argitaratzeko unean nahitaezkoak direnak zein aurreikusi daitezkeenak). Azken prezioa aipatzeaz gain, honako hauek ere zehaztuko dira, gutxienez:

a) tarifa edo pleita;

b) zergak;

c) aireportuko tasak, eta

d) beste kanon, errekaratu edo eskubide batzuk, kanpoko segurtasunarekin edo erregaiarekin lotutakoak, adibidez,

prezioari edo pleitari b), c) eta d) letretan jasotako kontzeptuak gehitzen zaizkienean. Aukerako gehigarrien prezioa argi, garden eta anbiguotasunik gabe jakinaraziko dira edozein erreserba-prozesu hastean, eta bidaiariak aukera izan behar du horiek hautatzeko edo ez.

2. 16. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoa errespetatuz, abiapuntua Trataturik aplikatzen zaion estatu kide bateko lurraldean dagoen aireportu batean duten aire-zerbitzuetan jendearentzako prezioak eta pleitak jakiteko aukera izango du herritar orok, inolako diskriminaziorik egin gabe bezerearen nazionalitatea edo bizitokia direla-eta edota Erkidegoaren barruan hegazkin-konpainiako agentearen saltokiaren edo beste txartel-saltzaile baten kokapena dela-eta.

24. artikulua

Zigorrak

1008/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 293/3, 2008/10/31koa).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Estatu kideek kapitulu honetan ezarritako arauak beteko direla zainduko dute eta haiek urratuz gero, zigorrak ezarriko dituzte. Zigor horiek eraginkorrak, proportzionalak eta disuasiozkoak izango dira.

V. KAPITULUA

AZKEN XEDAPENAK

25. artikulua

Komitea

1. Komite batek aholkatuko du Batzordea. 2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 3. eta 7. artikulua izango dira aplikagarriak, eta 8. artikuluan xedatutakoa bete egingo da.

26. artikulua

Elkarlana eta informazioa jasotzeko eskubidea

1. Estatu kideak eta Batzordea elkarlanean arituko dira Erregelamendu honen aplikazioan eta aplikazioaren ikuskapenean.
2. Erregelamendu honen arabera betebeharrak betetzeko, Batzordeak estatu kideei behar den informazio guztia eskatuko die. Estatu kide horiek, gainera, agintaritza eskudunek emandako lizentzia duten hegazkin-konpainiek informazio egokia eman ahal izatea erraztuko dute.
3. Estatu kideek, beren estatuko legeriari jarraiki, beharrezko neurriak hartuko dituzte Erregelamendu honen arabera jasotako informazioaren behar bezalako konfidentzialtasuna bermatzeko.

27. artikulua

Indargabetzea

2407/92, 2408/92 eta 2409/92 Erregelamenduak (EEE) indargabetu egin dira.

Indargabetutako Erregelamenduei egindako erreferentziak Erregelamendu honen erreferentziatzat hartuko dira, eta II. eranskinean adierazten den elkarrekikotasun-taularekin bat etorriko dira.

28. artikulua

Indarrean sartzea

Erregelamendu hau Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Araudi hau bete beharrekoa izango da bere elementu guztietan, eta zuzenean aplikagarria estatu kide bakoitzean.

Estrasburgon eginga, 2008ko irailaren 24an.

Europako Parlamentuaren izenean Lehendakaria H.-G PÖTTERING

Europar Batasuneko Kontseiluaren izenean Lehendakaria J.-P. JOUYET

1008/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 293/3, 2008/10/31koa).

ANEXO I

INFORMACIÓN QUE DEBERÁ FACILITARSE DE CONFORMIDAD CON LOS ARTÍCULOS 5 Y 8

1. Información que deberá facilitarse, desde el punto de vista de la capacidad financiera, al presentar la primera solicitud de licencia
 - 1.1. Los documentos financieros y contables internos más recientes y, si se dispone de ellas, las cuentas revisadas correspondientes al ejercicio financiero precedente.
 - 1.2. Una previsión de balance, con la cuenta de pérdidas y ganancias para los tres años siguientes.
 - 1.3. La base de cálculo de las cifras de gastos de ingresos previstos para conceptos como el combustible, tarifas, salarios, mantenimiento, amortización, fluctuaciones de los tipos de cambio, tasas de aeropuerto, tasas de navegación aérea, gastos de asistencia en tierra seguros, etc. Previsiones de tráfico y de ingresos.
 - 1.4. Detalle de los costes iniciales previstos en el período que medie entre la presentación de una solicitud y el comienzo de la explotación, y explicación sobre el modo en que se pretende financiar dichos costes.
 - 1.5. Detalle de las fuentes de financiación presentes y previstas.
 - 1.6. Detalle de los accionistas, con indicación de la nacionalidad y el tipo de acciones que posean, así como los estatutos de la sociedad. Si la compañía forma parte de un grupo de empresas, deberá facilitarse información sobre la relación entre ellas.
 - 1.7. El movimiento de tesorería previsto y los planes de liquidez para los tres primeros años de explotación.
 - 1.8. Detalle de la financiación de la compra o el arrendamiento financiero de aeronaves, incluidos los términos y condiciones del contrato si se trata de un contrato de arrendamiento.
2. Información que se facilitará para la evaluación permanente de la capacidad financiera de los titulares de licencias que tengan previsto efectuar una modificación de sus estructuras o de sus actividades que tenga una incidencia importante en su situación financiera
 - 2.1. Si fuere necesario, los documentos financieros y contables internos más recientes y las cuentas revisadas del ejercicio financiero precedente.
 - 2.2. Detalles precisos de todas las modificaciones propuestas, por ejemplo cambio del tipo de servicios, proyectos de adquisición o fusión, modificaciones del capital en acciones, cambios de accionistas, etc.
 - 2.3. Una previsión de balance, con la cuenta de pérdidas y ganancias prevista para el ejercicio financiero en curso, en la que figuren todos los cambios de estructura o de actividades previstos que tengan una incidencia significativa en la situación financiera.
 - 2.4. Los gastos e ingresos realizados y previstos para conceptos como el combustible, tarifas, salarios, mantenimiento, amortización, fluctuaciones de los tipos de cambio, tasas de aeropuerto, tasas de navegación aérea, gastos de asistencia en tierra, seguros, etc. Previsiones de tráfico y de ingresos.
 - 2.5. El movimiento de tesorería y los planes de liquidez para el año siguiente, en los que consten todos los cambios propuestos de la estructura o de las actividades, que tengan una incidencia significativa en la situación financiera.
 - 2.6. Detalle de la financiación de la compra o el arrendamiento financiero de aeronaves, incluidos los términos y condiciones del contrato si se trata de un contrato de arrendamiento.
3. Información que se facilitará para la evaluación permanente de la capacidad financiera de los titulares de licencias existentes
 - 3.1. Cuentas revisadas, a más tardar seis meses después del último día del ejercicio financiero correspondiente salvo que el Derecho interno disponga lo contrario y, si fuere necesario, el balance de gestión interna más reciente.

- 3.2. Previsión de balance, con la cuenta de pérdidas y ganancias prevista para el año siguiente.
 - 3.3. Los gastos e ingresos realizados y previstos para conceptos como el combustible, tarifas, salarios, mantenimiento, amortización, fluctuaciones de los tipos de cambio, tasas de aeropuerto, tasas de navegación aérea, gastos de asistencia en tierra, seguros, etc. Previsiones de tráfico y de ingresos.
 - 3.4. El movimiento de tesorería y los planes de liquidez para el año siguiente.
-

ANEXO II

TABLA DE CORRESPONDENCIAS

(Mencionada en el artículo 27)

Reglamento (CEE) n° 2407/92	Presente Reglamento
Artículo 1, apartado 1	Artículo 1
Artículo 1, apartado 2	Artículo 3, apartado 3
Artículo 2	Artículo 2
Artículo 3, apartado 1	Artículo 3, apartado 2
Artículo 3, apartado 2	Artículo 3, apartado 1, párrafo segundo
Artículo 3, apartado 3	Artículo 3, apartado 1, párrafo primero
Artículo 4, apartado 1	Artículo 4
Artículo 4, apartado 2	Artículo 4, letra f)
Artículo 4, apartado 3	—
Artículo 4, apartado 4	Artículo 4, letra f)
Artículo 4, apartado 5	Artículo 8, apartado 1, párrafo segundo
Artículo 5, apartado 1	Artículo 5, apartado 1
Artículo 5, apartado 2	Artículo 5, apartado 2
Artículo 5, apartado 3	Artículo 8, apartado 5
Artículo 5, apartado 4	Artículo 8, apartado 6
Artículo 5, apartado 5	Artículo 9, apartado 1
Artículo 5, apartado 6	Artículo 8, apartado 4
Artículo 5, apartado 7	Artículo 5, apartado 3, y artículo 8, apartado 8
Artículo 6	Artículo 7
Artículo 7	Artículo 11
Artículo 8, apartado 1	Artículo 4, letra c)
Artículo 8, apartado 2	Artículo 12, apartado 1
Artículo 8, apartado 3	Artículo 13, apartados 2 y 3
Artículo 8, apartado 4	Artículo 12, apartado 2
Artículo 9	Artículo 6
Artículo 10, apartado 1	Artículo 13, apartados 2 y 3
Artículo 10, apartado 2	Artículo 13, apartados 2 y 3
Artículo 11, apartado 1	Artículo 8, apartado 1
Artículo 11, apartado 2	Artículo 8, apartado 3
Artículo 11, apartado 3	Artículo 8, apartado 7
Artículo 12	Artículo 9, apartados 2 a 6
Artículo 13, apartado 1	Artículo 10, apartado 2
Artículo 13, apartado 2	Artículo 10, apartado 1
Artículo 13, apartado 3	—
Artículo 13, apartado 4	Artículo 10, apartado 3
Artículo 14	—
Artículo 15	—
Artículo 16	—
Artículo 17	—
Artículo 18, apartado 1	Artículo 26, apartado 1
Artículo 18, apartado 2	Artículo 26, apartado 3
Artículo 19	—
Anexo	Anexo I

Reglamento (CEE) n° 2408/92	Presente Reglamento
Artículo 1, apartado 1	Artículo 1
Artículo 1, apartado 2	Artículo 1, apartado 2
Artículo 1, apartado 3	—
Artículo 1, apartado 4	—

Reglamento (CEE) n° 2408/92	Presente Reglamento
Artículo 2	Artículo 2
Artículo 3, apartado 1	Artículo 15, apartados 1 y 2
Artículo 3, apartado 2	—
Artículo 3, apartado 3	—
Artículo 3, apartado 4	—
Artículo 4, apartado 1, letra a)	Artículo 16, apartado 1
Artículo 4, apartado 1, letra b)	Artículo 16, apartado 3
Artículo 4, apartado 1, letra c)	Artículo 16, apartado 2
Artículo 4, apartado 1, letra d)	Artículo 16, apartado 9
—	Artículo 17, apartado 1
—	Artículo 17, apartado 2
—	Artículo 17, apartado 4
—	Artículo 17, apartado 5
—	Artículo 17, apartado 6
Artículo 4, apartado 1, letra e)	Artículo 17, apartado 3
Artículo 4, apartado 1, letra f)	Artículo 17, apartado 7
Artículo 4, apartado 1, letra g)	—
Artículo 4, apartado 1, letra h)	Artículo 17, apartado 8
—	Artículo 17, apartado 9
—	Artículo 17, apartado 10
Artículo 4, apartado 1, letra i)	Artículo 18, apartado 1
Artículo 4, apartado 1, letra j)	Artículo 16, apartado 7
Artículo 4, apartado 1, letra k)	—
Artículo 4, apartado 2	—
Artículo 4, apartado 3	Artículo 18, apartado 2
Artículo 4, apartado 4	—
Artículo 5	—
Artículo 6, apartados 1 y 2	—
Artículo 7	Artículo 15, apartados 4 y 5
Artículo 8, apartado 1	Artículo 19, apartado 2
Artículo 8, apartado 2	Artículo 19, apartado 1
Artículo 8, apartado 3	Artículo 19, apartado 3
Artículo 8, apartado 4	—
Artículo 8, apartado 5	—
Artículo 9, apartado 1	Artículo 20, apartado 1
Artículo 9, apartado 2	Artículo 20, apartado 1
Artículo 9, apartado 3	Artículo 20, apartado 2
Artículo 9, apartado 4	Artículo 20, apartado 3
Artículo 9, apartado 5	Artículo 22, apartado 1
Artículo 9, apartado 6	Artículo 22, apartado 2
Artículo 9, apartado 7	—
Artículo 9, apartado 8	—
Artículo 10	—
Artículo 11	Artículo 25
Artículo 12, apartado 1	Artículo 26, apartado 2
Artículo 12, apartado 2	—
Artículo 13	—
Artículo 14, apartado 1	Artículo 26, apartado 1
Artículo 14, apartado 2	Artículo 26, apartado 3
Artículo 15	—
Artículo 16	—
Anexo I	—
Anexo II	—
Anexo III	—
—	Anexo II

Reglamento (CEE) n° 2409/92	Presente Reglamento
Artículo 1, apartado 1	Artículo 1
Artículo 1, apartado 2	Artículo 21, apartado 1
Artículo 1, apartado 3	—
Artículo 2	Artículo 2
Artículo 3	—
Artículo 4	Artículo 23
Artículo 5, apartado 1	Artículo 22
Artículo 5, apartado 2	—
Artículo 5, apartado 3	—
Artículo 5, apartado 4	—
Artículo 6	—
Artículo 7	—
Artículo 8	—
Artículo 9	—
Artículo 10, apartado 1	Artículo 26, apartado 1
Artículo 10, apartado 2	Artículo 26, apartado 3
Artículo 11	—
Artículo 12	—
—	Artículo 27
—	Artículo 28